

Alberdania, Erein eta Igela argitaletxeen eta Literatura Unibertsala bildumari jarraipena ematen. Atzo aurkeztu zituzten bi lanak gehiturik, jada 156 dira argitaratu dituzten lanak.


Calderon de la Barcaren eta Fournierren lanak, euskaraz

Nagore BELASTÉGI | DONOSTIA

Xabier Payak eta Monika Etxebarria hartu dute literatura unibertsaleko urrezko bi lan itzultzeko lana. Lehenak, Pedro Calderon de la Barcaren "Bizitza amets" ("La vida es sueño") antzezlan euskaratu du; bigarrenak, berriz, Alain-Fournierren obrarik ospetsuena, "Meaulnes handia" ("Le grand Meaulnes").

Xabier Oleaga editore eta itzultzaileak aurkeztu zituen bi liburuak Alberdania, Erein eta Igela argitaletxeen izenean; horiek dira Literatura Unibertsala sailaren arduradunak. Fournierren lana gazte literaturakoa dela eta oraindik ere adin tarte horrekin konektatzeko gaitasuna duela adierazi zuen eta, beraz, eskolatan promozioa egingo dutela. Calderon de la Barcarenari buruz, berriz, itzulpen lan oso zaila dela baina Payak oso lan txukuna egin duela esan zuen.

Horren ondotik, Payak editorearen hitzak eskertu zituen eta egindako itzulpenari buruz aritu zen. "Bizitza amets" hizkuntza askotan itzulua izan da, baina hau da euskaratzen den lehen aldia. Jende asko harrizten du horrek, eta horrek gogoeta piztu du itzultzailearengan: «Altxor hau euskaraz ez izatea harriztekoa da, baina harrizten denak liburu irakurri ez duela iradokitzen dit, oso konplikatua delako euskarara ekartzeko –bota zuen–. Ez da itzulpen agenzia batera bidal daitekeen lan horietako bat».



Xabier Paya eta Monika Etxebarria, bakoitza itzuli duen liburu berriarekin. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Kontatutakoaren arabera, Lope de Vega esaten zuen gai bakoitzak bere neurria izan behar zuela, eta Calderon de la Barcaren ere ildo horretatik jo zuen. "Bizitza amets"-ek errima eta neurri zehatzeko testuak ditu, eta horiek mantendu ala ez erabakitze gainerako itzulpenak aztertu zituen. Frantsesez prosara pasatu zuten; ingelesez, berriz, errimoa eta errima mantendu egin dute tradizioa dagoelako. Orduan euskal gizartearen tradizio hori ba al den galdetu zion bere

buñuari. «Xabi Paya bertsolariak Xabi Paya itzultzaileari erantzun zion: 'beti kantatu izan dugu gauzak kontatzeko', eta horretatik ahal izan duen neurrian errimak eta erritmoak mantendu ditu».

100 urte gazteak entretenitzen

Monika Etxebarria, bestalde, berak esku artean izan duen "Meaulnes handia" nobelari buruz aritu zen. Argitaratu zenetik 100 urte beteko ditu aurten, eta ordutik bere ospea handituz joan

da denboraren poderioz. «Fournierrek ez zuen saririk nahi, jende asko irakurtzea baizik, bere desira bete egin da», nabarmendu zuen.

Duen arrakastari esker, eragin handien duten XX. mendeko frantsesezko testuen zerrendan 9. postuan kokatzen da. Hau posible izan da, aspaldikoa bada ere, garai guztietako irakurleak erakartzeko estiloa duelako. «Abentura liburu bat da errealitate eta fikzioa nahasten dituen, oso entretenigarria».

Atzerrira joan direnen gatazka pertsonalak ditu aztergai «Txartel bat (des)herrira» nobelak

N.B. | DONOSTIA

Peru eta Ibai, arrazoi desberdinetatik Londresen bizi diren bi euskaldun, dira Garazi Goiaren liburu berriko protagonistak. "Txartel bat (des)herrira" (Elkar) eleberria ihesi dabiltzanen istorioa da azken batean, tartean iragana eta oraina, maistasuna eta damua nahasten direla.

Londresen bizi da Goia, bertan deskubritu zuen nobela honen oinarriko istorioa eta bertatik idatzi zuen ere. Estatu espainoleko Gerra Zibilean gurasok Britainia Handira bidali zuten Peru, beste euskal haur ugariarekin batera, gertatzen ari ziren sarrasketatik salbatzeko.

Bera ez zen inoiz etxera itzuli, beste 250 haur bezala.

Ibai, ordea, iraganean egin zuen zerbaitengatik damutu eta Londresera joan zen, lotsatzen duen horretatik ihesean. Biak bizi dira zenbait galderari erantzuna eman ezinik, eta elkar ezagutzen dutenean, oso adin desberdinekoak diren arren, lagunak egiten dira. Biekien batera, ohetik mugitu ezinik dagoen Ibairen neska lagunak, Maialenek, eta honen ahizpak, Sarak, ematen diote kutsu femeninoa istorioari.

Nobelak lau zati ditu, pasarte bat pertsonaia bakoitzeko. Ildo nagusiak Londresen dauden bi gizonengana bideratzen bagaitu



Goia aurkezpenaren aurretik. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

ere. Maialenek idatzitako egunerokoari esker, Sarak irakurtzen duenean, Ibairen izaeraren berri dugu, eta deserri zergatik joan den ulertzeko gakoak ematen dizkigu.

Identitaterik gabe

Gerrako haurren istorioa ezagutzeko hori bizi zuten hamar pertsonarekin jarri zen harremanetan. Bereak kontatutako esperientziekin sortu zuen Peru pertsonaia; beraz, Peru ez da existitzen, «Peru asko» baizik. Duela 75 urte baino gehiago etxetik alde egin behar izan zuten horiek komunean duten sentimendu bat da identitate falta, inongoak ez direla sentitzen dutela. Hori izango da Peruk duen kezka nagusia ere, herrian edo deserrian dagoen, eta ideia horretatik abiatu da nobelari izenburua jartzeko.

Idazlearen ahotsa (V)



Estibalitz EZKERRA
Literatur kritikaria

Labur bilduz, Stephen Kingen adierazpenek armen jabetza eta erabileraren aldekoen artean pizturiko haserrearen atzean hainbat kontu daude; besteak beste, idazlearen ahotsak gizartearen betetzen duen tokia. Idazlearen adierazpenekin bat gatozenez, zilegi iruditzen zaigu hura gure bozeramaile gisa aritzea. Gure iritziekin bat ez datozen adierazpenak egiten dituenek, ordea, arbuatu egiten dugu rol hori bera. Jarrera kritikoa izatea, herritar arrunta ikusteko gai ez den edo ikusi nahi ez duen hori azaleratzea da arte adierazpide ororen beharra, edo halaxe uste dugu. Bidegabekiaren bat salatzeko gai ez denean bere lana ezegokitzat jotzen dugu.

Agian, gehiegi espero dugu idazleengandik, ahaztuz hanka-sartzeak egin egin ditzaketela. Hala ere, herritar arruntaren ezjakintasuna eta hanka-sartzeak barkagarriagoak egiten zaizkigu beti, idazlearenak baino. Zilegi da hori egitea? Gaur egungo masa komunikabideen presentziarekin, posible da argudio horri eustea? Noren kontzientzia zuri nahi da alemaniar arruntek beren etxe ondoan gertatzen ari ziren bidegabekeriaren berri «idearik ez zutela» esaten denean? Noiz arte jarraituko dugu esaten ez dugula munduan gertatzen ari diren sarrasketan inplikaziorik, gure gobernuak geure ongizatea bera, modu batera ala bestera, beti inplikaturik daudenean? Noia uka dezakete armen jabetza eta erabileraren aldekoak beren jarrerak ez duela AE-Betan goraka doan krimen kopuruan eraginik? Noiz ulertuko dugu pentsamendu kritikoa ez dela intelektualek edo artisten zeregina bakarrik, herritar arrunta ere hasi behar zaioa burmuinari eragiten?